

GRADU AMAIERAKO LANAREN GIDA

# Gizarte Antropologiako Gradua


HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA  
UPV / EHU

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# ■ EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN GIZARTE ANTROPOLOGIAKO GRADUAREN GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA

## SARRERA

Gradu amaierako lana (aurrerantzean GRAL) titulazioaren laugarren mailan egin behar dela adierazten da, nahitaezko irakasgaien parekoa dela eta 12 kreditu balio duela. GRALa norberaren ikerketa akademikoaren barruan sartzen da eta hura egiteko ikasleak, ezinbestean, bere ezagutzak, sormenerako dohaina eta originaltasuna erabili behar ditu. Horrez gain, jardun profesionalean hasi orduko ikasleak gainditu beharreko heldutasun proba bat ere bada.

Honako gidaliburu hau ikastegiko batzarrak 2013ko apirilaren 10eko bileran onartutako arautegia gizarte antropologiako graduari egindako egokitzapena dugu, bere aldetik, UPV/EHUren gobernu kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutako arautegiaren beraren garapena besterik ez delarik.

Bertan aurkituko dira gizarte antropologiako graduaren GRALa definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta administrazioan tramitatzeko beharko dituzun jarraibideak.

## GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA

1. GRALa gauzatzeko, ikasleek, banaka, azterlan orijinal bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduako ikasketa aldian bereganatutako edukiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.
2. GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiarri edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen.
3. GRALa defendatu eta ebaluatzeko, ikasleak gaindituta izan beharko ditu ikasketa planeko gainerako gai guztiak eta, hortaz, GRALari dagozkion kredituak kenduta, graduako titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak eduki beharko ditu.
4. Graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahalko da lana, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola ere, GRALa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

## ■ PROPOSAMENEN GESTIOA

1. Ikasleak GRALaren gaia pentsatu behar du eta, gaia aukeratu ondoren, lan hori tutorizatu dezakeen irakaslearengana joango da.
2. GRALaren gaiari buruz zalantzak izanez gero, Gizarte Antropologiko graduaren GRALaren koordinatzaile(ar)engana joan daiteke tutoretza bat egitera.

## ■ MATRIKULA

1. Bi egoera daude matrikula egiterakoan. Batetik, Ikasturte bakoitzaren hasieran GRALa bakarrik geratzen bada, automatrikula garaian edo ikasturtearen hasieran matrikulatu beharko da. Ez dira onartuko urriaren 30etik aurrera iristen diren eskaerak. Bestetik, ikasturtearen hasieran irakasgai gehiago geratzen badira, ezin izango da matrikulatu automatrikula egunetan, gainditu gabe dauden guztiak gainditu arte. Kasu honetan, matrikula/defentsa datak graduaren web orrian argitaratutako dira.
2. Matrikulak bi deialdi ofizialeterako eskubidea emango du ikasturte bakoitzean. Ezarritako bi deialdietan lana defendatu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.
3. Ikasleak zehaztuko du GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duen.

## ■ GRALaren ZUZENDARITZA

1. GRALaren zuzendaria graduan eskolak ematen dituen irakaslea edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoa izango da.
2. GRALak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.
3. Unibertsitateko beste sail edo ikastegi batzuetako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta zuzendarikide bat badago, graduan eskolak ematen dituen sail batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia.

## ■ ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

1. Lanerako gaia zehaztu ondoren, zuzendariak izango dituen eginkizunak egin beharreko lanean honakoak dira:
  - a) Aurretiko fasea: fase honetan egin beharreko lanaren berri emango zaie ikasleei, eta zuzendariak eta ikasleak kontratu bat sinatuko dute GRALa egiteko, eta GRALa koordinatzen duten pertsoneri emango zaie.

- b) Gauzatze fasea: Fase honetan ikasle bakoitzari orientazioa emango zaio eta lana egiteko prozesuaren jarraipena egingo da, lana egiteko egutegia betez eta betearaziz. Horretarako, zuzendariak eta ikasleak hiru tutoretza izan beharko dituzte gutxienez. Fase hau amaituko da ikasleak gradu amaierako lana zuzendariari ematen dionean.
- c) Onarpen fasea: Zuzendariak GRALa kalifikatu beharko du (gai edo ez gai) defentsarako, eta txostena beteko du ikaslea defentsa prestatzen has dadin.

## ■ GRALaren LANKETA

1. GRALa egiteko bi aukera daude: parte enpirikoa duen lana egitea edo lan bibliografikoa.
2. GRALak 10.000-15.000 hitz izango ditu gutxi gorabehera, bibliografia kontuan hartu gabe.
3. Alderdi formalak zaindu egin beharko dira. Edukia egokiro eta logikoki antolatuta egongo da; hautatutako gaiaren alderdi guztiei helduko zaie; idazkera zuzena izango da, bai gramatikari dagokionez, bai semantikari dagokionez; edukiak argiro adieraziko dira, eta ideien arteko lotura ondo islatuta geratuko da.
4. Lana burutzeko erabilitako bibliografia antropologiaren kanonei jarraituta aipatu beharko da. Gizarte Zientzietarako Chicago estiloa erabiltzea gomendatzen da. Honako esteka kontsultatu: <https://www.ehu.es/eu/web/biblioteca/bibliografia-gestoreak>

## ■ EPAIMAHAIA

1. GRAL bakoitza lan horiek ebaluatzeko eraturako epaimahai batek ebaluatuko du.
2. Ebaluazio-epaimahaiak GRALaren koordinazioak ezartzen duen moduan eraturako dira, matrikulatutako ikasle-kopurua eta garaturako GRALen gaiak kontuan hartuta. Titulazioko irakasle guztiei epaimahaietan parte hartzeko bidea emango zaie.
3. Epaimahai bakoitza hiru kidek eta, gutxienez, ordezeko batek osatuko dute. Epaimahaikideak gradua ematen den ikastegikoak izango dira.
4. Epaimahai bakoitzean egongo dira: presidente bat, idazkari bat eta bokal bat.

## ■ DEFENTSA ESKAERA

Kontsultatu informazioa lotura honetan:

<https://www.ehu.es/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/antropologiako-gradu-amaierako-lanaren-matriculala>

## ■ GRALaren DEFENTSA

1. Epaimahaiko kideak behin izendatuta, ikasleak lana aurkeztu eta defendatu beharko du.
2. GRALaren defentsa aurrez aurre egingo du ikasleak.
3. GRALaren ahozko defentsa publikoa izango da
4. Lanaren defentsa graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin ahalko da.
5. Ikasleak, behar dituen ikusentzuteko bitartekoak, eskura izango ditu.
6. Ikasleak ahozko defentsa egiteko 20 minutu izango ditu gehienez. Tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu..
7. Defentsa amaituta, epaimahaiak, proiektuaren kalitatea epaitu aldera, 15 minutu izango ditu GRALari buruz eztabaidatu eta lanari buruzko galderak egin eta argibideak eskatzeko.
8. Ondoren, ebaluazio-epaimahaiak GRALa ebaluatuko du, isilpeko deliberazio bidez. Nota GAUREn publikatuko da.

## ■ EBALUAKETA ETA KALIFIKAZIOA

1. Alde hauek kalifikatuko dira:
  - a) GRALaren idatzizko aurkezpena.
  - b) Lanaren ahozko defentsa.
2. Ikasleak gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak emango dizkio txosten batean, lana berriz ebaluatzen denerako.
3. Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, dezimal bakarrarekin, eta letraz ere adieraziko da:

Aurkeztu gabe (AG)

0 – 4,9: Suspentso (S).

5,0 – 6,9: Nahikoa (N).

7,0 – 8,9: Oso ongi (OO).

9,0 – 10: Bikain (B)

Deialdi batean lana aurkezteko eskubideari uko egingez gero, "Ez Aurkeztua" adierazi beharko da.

"Ohorezko matrikula"ren aipamena eman dakieke 9,0 edo gehiagoko kalifikazioa lortu duten ikasleei. Ez da izango kasuan kasuko ikasturteko irakasgai horretan matrikulatutako ikasleen % 5etik gorakoa.

4. GRALen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arauetara jarraiki egingo dira, baina ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du, eta, ondoren, ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko

errektoreari.

5. Nolanahi ere, GRALaren kalifikazioa urriaren 31 baino lehen agertu beharko da lanean matrikulatutako ikaslearen espedientean.

## ■ EPAIMAHAIEN DEIALDIEN DATAK

GRALen defentsa egin daiteke honako deialdietan:

1. Ohiko deialdia. Lehenengo lauhilekoan: Urtarrila
2. Ohiko deialdia. Bigarren lauhilekoan: Ekaina
3. Ez ohiko deialdia (ohiko deialdian aurkeztu ez diren edo gainditu ez direnentzat):  
Iraila

Deialdien datak jakiteko, sakatu lotura honetan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gral-egutegia>

## ■ GRALen ARTXIBATZE ETA KONTSULTAK

GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legearen babespean dago. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea da, eta hark ezin izango dio eskubide hori inori laga lana epaimahaiaren aurrean defendatu eta GRALaren behin betiko kalifikazioa lortu arte.